

Ekitaldiz betetako 25. urteurrena antolatuko du Lasarte-Oriako Udalak

Hurrengo astean, otsailaren 14tik 20ra egingo dira herriaren urteurreneko ospakizunak

Otsailaren 15ean, 25 urte izango dira Lasarte-Oriako udalerrria sortu zenetik. Urteurren hau ospatzeko, Lasarte-Oriako Udalak otsailaren 14tik 20ra egitarau berezia prestatu du.

25. urteurren honetako egitarauaren aurkezpena Jesus Zaballos alkateak, Marisa Zubiri Jaietako batzordeko lehendakari eta Xabier Goitia Manuel Lekuona kultur etxeko kudeatzaileak egin zuten atzo.

Egitaraua

“Lasarte-Oria herri gazteenetarikoa da eta herritarrek sortutakoa. Horregatik, urteurrenean herria egin duten jendeak parte hartzea nahi izan dugu,” azaldu zuen alkateak.

Izan ere, alkatearentzat garrantzitsuena “herritarrek Lasarte-Oriakoak direla sentitzea lortu dugula” da.

Gauzak honela, “herriko elkarten laguntzaz, aste osoko egitaraua eta ekitaldiz betetako dugu” adierazi zuen. Ekitaldi instituzionalak, Oria auzoko argazki erakusketa, liburu desberdinen aur-



Lasarte-Oriaren 25. urteurreneko egitaraua eta aldizkaria aurkeztu zuten alkateak, Marisa Zubiri eta Xabier Goitiak.

kezpenak, herriko taldeen emanaldiak, kirol ekintzak, hitzaldiak, gazteentzako ekitaldiak, haurrentzako jolasak, etab. osatzen dute 25. urteurreneko egitaraua.

“20. urteurrenean, 51.000 eutaroko aurrekontua izan zen eta oraingoan, 20.700 eurotura murriztu dugu,” jakinarazi zuen Jesus Zaballos alkateak.

Gonbidapenak

Ekitaldiei dagokionez, astelehen Kukurak eskainiko duen emanaldirako eta larunbateko Erketz, Zero Sette akordeoi orkestra, Alboka Abesbatzak, Semblante Andaluz eta Amaia Gonzalezek eskainiko duten emanaldirako gonbidapenak egongo direla jakinarazi zuen Xabier Goitiak.

Hauek dagoeneko Manuel Lekuona kultur etxeko harre-ran eskuratu daitezke.

Aldizkaria

Egitarau honetaz gain, Lasarte-Oriako Udalak aldizkari bat egin du “herritarrek urte hauetan herriak izan dituen aldaketak eta garapena ikus dezaten”.

“Herriko eremu desberdinen iragana eta oraina ikusi daiteke argazkietan, adibidez, Villa Mirentxuko eremua edo osasun zentroaren lekualdatzeak,” aipatu zuen Zaballos alkateak eta argazkiak Udaleko artxibokoak eta Txema Vallesenak direla ere azpimarratu zuen.

Alkateak jakinarazi zenez, aldizkaria egun hauetan etxeetan banatuko da eta bertan, atzeko aldean, “25. urteurreneko egitaraua izango dute herritarrek”.

Honen harira, egitarauan akats bat dagoela ohartarazi zuen Xabier Goitiak, “Sorgin dantza igandean arratsaldeko 16:00etan aterako da Zumaburuko eliza ondotik”.

Urtero ospatu

Era berean, Jesus Zaballos alkateak gogoratu zuen Gazteria sailak egindako *Gazte ideiak* lehiaketako irabazle izan zen Sandra Izagirrerren ideia, herriaren urteurrena urtero ospatzea izan zela eta urteurrenaren ostean, urtero otsailaren 15ean, ekitaldiren bat egiteko asmoa agertu zuen. •



Arte eszenikoek garrantzia handiagoa izango dute kafetegiko emanaldietan /3

KIROLA /6
Carrasco eta Gonzalez eremuko ehiza txakurrarekin txapelketako irabazleak



Loidi-Barreneko padel eta rokodromo berriak martxan daude /4-5

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI OTSAILAK 24 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

BILBAO OTSAILAK 19 larunbata, 10:30

Euskalduna Jauregia.

Etorri aurretik izena eman!



Neure kabuz



Helburua + Kamarak
= KONTROLA

Udaletxe berriko eraikuntza lanak gertutik bizi ditudala aurreko zutabe batean ere agerian geratu zen. Azken hilabeteetan asko dira salatzekoak baina aste honetakoak norbanakoaren duintasun eta hiritartasunerako muga guztiak gainditzen dituelakoan nago.

Goiz eguzkitsua zen eta arropak zabaltzera irten nintzenean obrako langileekin egin nuen beste behin topo. Goiz horretako eginberrak: kameraz josi udaletxea. 15 metro exkaxetara dudan kamerak norabide fijoak omen du, atzeko pasabide estua eta eraikuntzako horma enfokatzen dutela zin egin ninduten langileek baina... eta gainontzeko guztiak? Zergatik ipini dira? Zertarako? Okendo plazako fatxadan beste lau kamera kontatzen iristen nintzen egunaren bukaeran eta eraikuntzako beste iskinean jarri duten kamerak duen norabidea nahiko susmagarria da.

Sartu-irtenak, arkupe azpiko herritaren harremanak, jarrekek eta ekintza denak gutxienez grabatu ahaliko dira. Grabatu egingo dira.

Segurtasuna aitzakiatzat hartuta lasaitasuna saldu nahi duzue. Baina benetan kontrola duzue helburu. Edo eta behintzat ez dut bat egiten kamerak jartzearen agindua eman dutenen segurtasun eta lasaitasun kontzeptuekin. Are gutxiago euren printzipio eta lehenetsunekin (adib: kamara hauek eta bere mantenua, ez ipinita aurrezko zen diruarekin nik beste lehenetsun premiakzko batzuk ikusten ditudalako herrian nire egunerokotasunean).

Besteak beste, segurtasuna, lasaitasuna,... gizarte kultura eta sozializazio demokratiko eta parte hartzaile batean oinarritzen direla esango nuke. Eta oinarri hauen garapenak huts egiten du gure herrian.

Onartuko al luke herriko alkateak bere bulego berrian 24 orduko grabaketa? Agian eredu ematen hasiko bazen gainontzeko herritarrek onartzeko prest egongo ginatke.


Ainares Lasa

Zorion-agurrak



Naiara eta Aingeru

Zorionak bikote! Oso ondo pasa zuen urtebetetzean. Muxu erraldoia familiaren partetik



Oier

Zorionak maitia! 7 muxu goxo familiaren partetik, bereziki Unai, aitaxo eta amatxo. Ondo pasa!



Maialen

Zorionak maitia zapi muxu handi familiaren partetik



Manolo

Zorionak aitona, muxu potolo bat Ane eta Unaxen partetik.



Maddi

Zorionak printzesa. Sei muxu potolo zuretaz. June, ama eta aita.



Julen

Zorionak eta hamar muxu handi familiaren partetik.



Ainhoa

Zorionak! Ondo pasa zure 9. urtebetetzean. Lehengusuen partetik.



Ane

Zorionak bitxejo ama eta aitaren partetik!!



Nora

Zorionak zure lehen urte betetzean! Oier, Ama eta Aitaren partetik. muxu handi bat



Saioa

Zorionak familiaren partetik! Ekarri tarta goxoa denok jateko zure kontu!



Haizea

Zorionak zure 9. Urtebetetzean Amanda ahizpa eta gurasoen partetik.



Naroa

Zorionak printzesa!!! 4 muxu potolo aitaxo eta amatxoren partetik.



Amagoia

Zorionak 'amatxito'! Ondo pasa eta muxu handi bat Irati eta familiaren partetik.



Iraide

Zorionak bihotza zure lehenengo urtebetetzean! Maite zaitugu aitaxo eta amatxo.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Lasarte-Orian lokal bat alokatzen da. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 615 735 180.

• Txaleta saltzen da Valladolidetik 6 km. tara, toki aldaketagatik. 315 m², 200 m. eraikiak, 2 urte eta altzariz hornitua, 330.000 euro. Pisu aldaketa egiteko aukera. Harremanetarako: 666 373 848, Lucia.

• Benidorren, Finestrako kalan, apartamentua alokatzen. Hondartzatik 150 m. ra, merkatua, dendak, golf zelaia eta merkatal gunea ondoan ditu. Tel.: 667 731 456.

• Garajea salgai edo errentan, kulturetxeko eremuko etxebizitzetan. Tel.: 610 961 369.

• Bi garaje alokatzen dira, bata 70 eurotara eta bestea 60 eurotara. Harremanetarako: 671 605 727.

Salerosketak

• Mobilhomea salgai Oliten. Harremanetarako: 626 057 485.

Lan-eskaintzak

• Klase partikularrik ematen dituzte: euskera, ingelesa, gaztelera, matematika... Harremanetarako telefono zenbakia: 693 601 222.

• Pertsona bat behar da arratsalde bi urte eta erdiko umea zaintzeko. Harremanetarako: 687 230 051, Eva.

Lan-eskariak

• Mutil bat eskaintzen da eraikuntzan, biltegieta edo nekazaritzan lana egiteko, eskarmutuarekin. Tel.: 667 808 934, Afzal Muhammad.

• Lasarteko neska gaztea eskaintzen da kurtsoan zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Tel.: 677 823 141.

• Andre euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako: 618 097 676.

Bestelakoak

• Umea eramateko mendiko motxila erosiko nuke. Harremanetarako: 647 973 854.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 11

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 12

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 13

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astelehena, 14

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteartea, 15

Rodriguez, Kale Nagusia 42 ataria
Tel.: 943 361774

Asteazkena, 16

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Osteguna, 17

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Jaiotzak

- Ariadne Luis Franco, otsailaren 5ean.
- Jon Mindegui Rubio, otsailaren 2an.
- Lide Beloqui Mateos, otsailaren 1ean.

Heriotzak

- Mariana Vega Martin, otsailaren 9an 91 urte zituela.
- Dolores Castillo Castro, otsailaren 7an 82 urte zituela.
- Micaela Iriarte Saralegui, otsailaren 2an 86 urte zituela.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Arte eszeniko gehiago izango da kafetegiko emanaldietan

Xpressionk elkarteak hamahiru saio kudeatuko ditu

Lasarte-Oriako Udalak eta Xpressionk Kultur elkarteak lankidetzan hitzarmena sinatu zuten astelehenean.

Sinaketa ekitaldian Lasarte-oriako alkatea Jesus Zaballo, Jokin Telleria Xpressionk elkarteko arduraduna, Marisa Zubiri gazteria saileko lehen-dakaria eta Xabier Goitia Manuel Lekuona kultur etxeko kudeatzailea egon ziren.

Hitzarmena

Hitzarmenean adierazten denez, "Lasarte-Oriako Udala interesaturik dagoela Xpressionk elkarteak bere baliabide eta medio pertsonalen ektura aporrtan, Lasarte-Oriako udalerrian garatzen diratekeen ebentukultural jakin batzuei estaldura emateko".

Honela, hamahiru emanaldi kudeatuko ditu Xpressionk kultur elkarteak eta horietako bost gutxienez kontzertuak izango dira.

Izan ere, hitzarmenean adostu den bezala, "Lasarte-Oriako Udalak Elkarteari 3.950,00 eurotako diru-laguntza ordainduko dio, hitzarmen honetan aurreikusitako bost kontzertuak emateko".

Arte eszeniko gehiago

Gauzak honela, lehenengo ostiralean, otsailaren 4an urteko lehenengo saioa burutu zen Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian.

Honetan Nasdrovia antzerki taldeak bakarriketarik



Musika eta arte eszenikoak txandakatuko dira kultur etxeko kafetegiko emanaldietan.

egin zituen. Xpressionek arduraduna den Jokin Telleriak azpimarratu zuenez, "iaz arte eszenikoekin egin genuen proba eta harrera ona izan zenez, aurtengo presentzia gehiago izango du. Horregatik, hasi gara talde horrekin".

Era honetara, geratzen diren hamabi saioetan, kultur etxeko kafetegiko oholtzan, kontzertuak eta arte eszenikoak txandakatuko direla jakinarazi zuen.

Gainera, sinaketa ekitaldian aipatu zuten, otsailtik ekainera emanaldi hauek hilabeteetan bitan egingo dira eta udarearen ostean, hau da, urritik abendura, hilabeteetan behin hartuko dute kafetegiko oholtza. Era berean, taldeak eta lanak hitzartu gabe dituztela ere jakitera eman zuten.

Herriko taldeak

Honetaz gain Jokin, kafetegiko emanaldietan parte hartzeke deia egin nahi die arlo horietan lan egiten duten herriko taldeei.

"Guztiei irekitako eremua da kafetegiko eta haien lana erakutsi nahi duten taldeek, Manuel Lekuona kultur etxean galdetu edo gure web orrialdearen bitartez, www.xpressionk.net, jarri daitezke harremanetan gurekin," aipatu zuen.

Kafetegiaren kudeaketa

Jesus Zaballo alkateak azaldu zuenez, kafetegiaren kudeaketa Juanjo Marante Gobernu kanpoko erakunde eta Lasarte-Usurbil Institutuko gazteen esku geratuko da.

17. KORRIKA

Korrikako batzordeko bilera gaur

Hilabete gutxi geratzen dira Euskal Herria zeharkatzen duen euskararen aldeko lasterketa erraldoiari hasiera emateko, hain zuzen ere, irteera apirilaren 7an Trebiñun emango baitaio.

11 eguez gelditu gabe, hamazazpigarrenez, Euskal Herriko txoko guztiak igaro eta apirilaren 17an Donostiara helduko da. "Maitatu, ikasi, ari... euskalakar!" lelopean, bi mila kilometro baino gehiago egingo ditu Korrika 17k, gau eta egun gelditu gabe. Lasarte-Oriara apirilaren 17an, goizaldean iritsiko dela, jakinarazi digute Munterri-AEK euskaltegiko arduradunek.

Gauzak honela, Lasarte-Oriako Korrikaren inguruko ekitaldiak eta ibilbidea antolatzeko Korrikako Batzordea eratuko da. Horregatik, euskaltegiko lagunek gonbita egiten diete herritarrei eta Lasarte-Oriako taldeei Batzordearen bidez 17. Korrika honetako parte izatera. Korrikako Batzordearen lehenengo bilera, gaur 18:00etan egingo da Munterri-AEK euskaltegian.

HEZKUNTZA

Herriko ikastetxeetan aurre-matrikula egiteko azken eguna da gaur

Landaberri ikastolak eta Zumaburu-Sasoeta ikastetxeak 11-12 ikasurterako haurra matrikulatu nahi duten gurasoei gogorarazten diete gaur dela izena emateko azken eguna.

KIROLA

Pala txapelketan izena emateko azken eguna da gaurkoa

Ostadar Kirol Fundazioak gomazko pilotarekin jokatzeko XVII. Pala Txapelketa antolatuko du eta gaur da bikoteek izena emateko azken eguna.

Ostadarrek antolatzen duen txapelketa honen ezaugarrietako bat gomazko pilotarekin jokatzeko dela da. Partidak aurreko edizioetan bezala, udal instalazioetako frontoian, Michelingo frontoian, jokatu dira asteburuetan.

Edizio honetan parte hartu nahi duten bikoteek Ostadarreko bulegoan, Geltoki kalea 25, eman behar dute izena, gaur 16:00etatik 20:00ak bitartean.

Honetaz gain, bilera bat egingo dute otsailaren 16ean, arratsaldeko 19:00etan.

Mendiko federatu txartela

Ostadar Kirol Fundazioak mendiko sailak gogoratzen du mendiko kirolak, hau da, eskia, mendiko txirrinda, ibilaldiak edo eskalada maiz egiten duten herritarrek federatuak egotea komeni dela.

Mendiko federatu txartela izateko interesa dutenek Ostadarreko bulegora hurbildu, Geltoki kalea 25 z/b., 18:30etatik 20:00etara, eta informazioa eskatu dezatela.

Erraustegiaren finantzariaren aurkako elkarretaratzea

Gipuzkoako Erraustegien Aurkako Plataforma Koordinadorak La Caixa eta Banesto bankuen aurkako salaketa kanpaina antolatu du otsailaren zehar, Gipuzkoa Zero Zabor, Ekologistak Martxan eta Eguzki talde ekologisten parte hartzearekin.

"Aipatutako bankuak Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaren, Zubietako Erraustegien egiteko beharrezkoa den kopuruaren zati bat, 60 milioi euro, negoziaketetan daude," azaldu du Koordinadorak.

Era berean, "Banestok eta La Caixak lehentasun osoa

ematen diete etekin ekonomikoari, nahiz eta garbi egon erraustegiak inguru zabal bateko biztanleen osasunaren gainean eragin negatiboa izan dezakeela, nekazaritza, abeltzaintza eta ingurugiroa era nabarian kaltetuak izango direla, baliagarriak diren lehen-gaiak erreaz CO2 eta NOx kantitate handiak igorriko dituela atmosferara, hauek direlarik aldaketa klimatikoaren eragile nagusiak edo gizartearen parte handiak hondakinen kudeaketa jasangarriago baten aldeko apustua egiten duela" salatzen du Koordinadorak.

Elkarretaratzeak

Honen aurrean talde ekologistek hainbat ekintza antolatu dituzte hilabete honetan: elkarretaratzeak banku hauek Gipuzkoan zehar dituzten bulegoetan aurrean, gutunak bulegoetako arduraduneei, besteak beste.

Gauzak honela, Lasarte-Oria Bizirik! taldeak larunbatean, otsailaren 12an, eguerdiko 12:00etan Denon osasunaren gainetik beraien negozioa aurretik lelopean elkarretaratzea egingo du Lasarte-Oriako La Caixako bulegoaren, Kale Nagusia 38, aurrean.



Erraustegiaren aurka beste mobilizazio bat egingo da larunbatean, 12:00etan.

Padel pista eta rokodromoa zabalik

■ Urtarilaren 31z geroztik Loidi-Barreneko padel pista eta rokodromoa martxan daude
■ Eskalada eta padel kirolak ezagutzeko aukera berria zabaldu du Lasarte-Oriako Udalak



Luzera jo duen obra izan bada ere, azkenean Loidi-Barreko frontoia, padel pista eta rokodromoa martxan dira urtarilaren 31etik aurrera. Udal Kiroledegian eta frontoiaren ondoan eraiki dira eta erabiltzeko prest daude. Eskaladan murgiltzeko edota probatzeko aukera luzatu digute, eta baita padelaren hasierako ere. Aurreiritzi asko dira kirol honen inguruan baina aberatsen kirola dela pentsatzeaz utzi, probatu eta kirol honetaz gozatzeko aukera izango da etorkizunean.

ITXASO MORENO
Loidi-Barrenen aurrera eramanez, Udala padel pista, Rokodromoa, Frontoia eta komun publikoak E Planean laguntzaz finantzatu ditu. Urte osoan 25an Miel Cabieces Gobernuko ordezkaria inauguratzen dituzten berri bostzen ere, urtarilaren 31an ireki ziren kirol instalazioak hartzen dituzte.

Kirolegiko kudeatuko dituen instalazio berri hauek, hau da, instalazioak erabili nahi dituztenek Kirolegiko aurrera joan behariko dituzte.

Bazkideak libre
Bazkideek beraien kartela nahikoa izango dute padel pista edo rokodromo gunea sartzeko edo bazkide ez direnak kiroldegiko sarreran ordaindu sartuko dira.

Padel pista alokatzeko edo okupatzeko aukera egingo da

Udal ezberdinek praktikan nahi duen orok orain aukera zabaldu dute padel pista, frontoia eta rokodromoari esker eta jarraitzen instalakuntzara eta lehenengo pautak eman nahi dituztenentzat.

Ordutegia
Rokodromoa zein padela erabiltzeko ordutegi zabalduko da, jomada erdiz, goizeko 9:00etatik 13:00ak arte.

Larumbatean goizeko 09:00etan irekiko da gunea berria eta gaueko 22:00ak bitartean egongo da zabalik. Asteleheneetik ostiralera igandean eta jai egunean 22:00etara erabili ahal izango dira instalazioak.



Padela kirol osasun eta dibertigarria dela eta praktikatzen duenek, Niri pena ikaragarria ematen zidan egina eta itxia ikustek. Belar artifiziala izan arren zaindu eragin behar da. Pista hutsa ikustek, bihotzera iristen zizaidan. Baina pozik nago lortu dugulako, proiektu polita da eta jendea animatu nahiko nuke probatzen. Ona da herriarentzat.

Gero eta gehiago dira kirol berriak probatzeko grina dutenak, eta honen bidez lortuko

“Jendeak padela probatzen duenean gustokoa izango du”

Elia Lorenzo Padel jokalaria

Padela tonisatzen, eratorritako kirola da, baina ezaguerri bereziki. Publiko zabal bati bideratutako kirola da, ez bakarrik adinez nagusi direnentzat. Tenisaren alderatuta eraketa astunagoa eta lodiegia da, eta horrela pilotak abiadura handiagoa har dezake. 10 metroko zabalera eta 20 metroko luzerako laukizun forma duen kanteraxa itxietan jokatu ohi da. Arauak tenisekoen antzerakoak dira, baina pilotak paretan errotoa dezake.

Herriaren artean padelarekiko grinarik edo gogorik sumatu al duzu?

Padela ezagutzen dutenen artean bai, padel pista horren beharra ikusten genuelako. Asteburu honetan padelaren aditua den Eli Lorenzoren eskutik barneratu zaitezke padel munduan. Gu benearekin kezkatu zen informazioa eskatzeaz, baina hainbeste denbora

Juan Mari Iraola, Txomin Otaegi eta Alex Tetuan Ostadar elkarteko Mendi Saila

“Hiru hamarkaden ostean lortu dugu rokodromoa”

genizketen. Rokodromoa hobeto eginda egon zitekeen, horregatik sentazio gazi- gozoa, baina gauzak horrela, dagoen bezala eta gustura erabiliko dugu.

Zeratik da rokodromo bat?
Entrenatzeko tresna bat da, neguan eguradi karra egiten duenean erabiltzen den eskalazitateak forma onart esteko. Harkaitzean ezin zara ibili, orduan rokodromoa plan alternatiboa da. Batez ere, boulderra egiten da. Hau da, arotzera igotzen ariko bazitza bezala, altuera ez oso handian, amesik gabe eta behean kolokotzaren erortzen bazaitza mina ez hartzeko.

Eskaladan ibili ez direnentzat ere ba al da tokirik?
Bai noski. Lau panel daude inkluzio ezberdinetan. Hauen arabera lan gehiago ala gutxiago eskatzen da. Inkluzio gehiago bada, indar eta teknika gehiago behar dira. Errazena eskunean aurkitu dugu, eta ezkereruntz joan ahalga gaitu zaitzen da.

Zer gabezia dugu?
Ez dago gutxi ezustiala. Zati bat busti egingo da. Gainera, argitasun gutxi dauka, ikusten da, baina ez modu egokian. Kaleko iluminazioa da eta eskasi iruditzen zaigu.

Eskaladan ibili ez direnentzat ere ba al da tokirik?
Bai noski. Lau panel daude inkluzio ezberdinetan. Hauen arabera lan gehiago ala gutxiago eskatzen da. Inkluzio gehiago bada, indar eta teknika gehiago behar dira. Errazena eskunean aurkitu dugu, eta ezkereruntz joan ahalga gaitu zaitzen da.

Ze inruditu zaizue rokodromoan?
Eskara historikoaren hursu-nea betetzeko erabili dute, sentazio gazi-gozoa dugu egia esan. Alde batek gozatu arteko aukera dute. Juan Mari Iraola, Txomin Otaegi eta Alex Tetuan, Ostadarreko Mendiko Saileko kideak abokatu izan lanak egiten dituzte.

Nola hartu zenuen rokodromo erabiltzeko zela?
Oso ondo hartu genuen. Herriko jende ugari ibiltzen da Santa Barbara (herriari) eskalazten. Atzizko dago, eta hori bideratu beharra zegoen. Gainera neguan ezin diruzi eskalada jarraitu naturalen egin, eta forma ez gaitzeko rokodromo beharrezkoa da. Gainera kirol polita da eta jendea erakartzen du.

Hala ere esan beharra dago kirol instalazio zaharretatik 1.300.000 euroko aurrekontua egin dela, eta 200 rokodromoentzat 60.000 euro besterik ez direla izan.

Ikasleak, eta ordu beteko saria izango da. Herriaren padelaren grina barneratu nahi diet, Nola jolasten den eta kirol hau mailatzen irakatsi.

Biharkeaz gain beste bihurtu saio egongo dira. Hurrengo otsailaren 20an, igandean izango da. Beste bi saioak larumbatean izango dira otsailaren 26an eta martxoaren 12an.



Frontoia lanen lehenengo fasean egon zen eta bigarren fase honetan frontoia bareratu egin da. Ber dago zabalik erabiltzeko prest. Osoailek aurrera Udak instalazio berri hauek jartu dituzte eta orain herriaren dibertigarria eramanen hauek erabili eta jolatu egiten. Pigeu, sarrerak gaitu eta egiten dituzte.

Adin guztientzako kirola da?
Bai, noski. Adin guztientzako kirol atsegina izan daiteke. Prestatuko dituzten ikastaro hauen bi talde eratuiko dira, lehenengo 8 urteik 14 bitartekoa izango da. Beste 14tik gorakoentzat. Talde bakoitzari egokituako ikastaroa izango da. Interesa duen orok mesedez kiroldegitik pasa eta ikastarorako izena eman dezala. Horrela, leku duteala zuzentzeko dute eta gure aurretik materiala prestatuta edukitzea, kirola izango dugu.

TR/HT-PI
Instalazio elektrikoak

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Kiroletako agenda

I FUTBOLA I

Larunbata 12

11:00etan, Ostadar - Bergara (Infantilen Ohorezko maila, txapeldunen fasea) Michelinen.
13:00etan, Ostadar - Eibar (Emakumezken KDT F-11, txapeldunen fasea) Michelinen.
15:30ean, Ostadar - Martutene (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.
17:15ean, Ostadar - Irun C.F. 1902 (Erregional Gorena) Michelinen.

11:00etan, Lagun Onak - Ostadar (Infantil Txikiak, kopa) Garmendipe, Azpetian.
11:30ean, Amaiak Bat - Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Errotazar, Deban.
17:30ean, Behobia - Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Artia, Irunen.

Igandea 13

10:30ean, Ostadar - Beti Ona (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.

09:00etan, Astigarragako Mundarro - Ostadar (Partehartze infantilak, kopa) Martutene, Donostian
14:00etan, Antigua Luberrri - Ostadar (I. Jubenila, kopa) Rezola, Añorgan.
17:30ean, Amaiak Bat - Ostadar (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Errotazar, Deban.

I ARETO-FUTBOLA I

Ostirala 11

HERRIKO TXAPELKETA
19:45ean, ISU Leihoak - Buenetxea
20:40ean, Izkiñ - Epel

Larunbata 12

17:45ean, Aldaz H.K. - Orioko taberna (Nazional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Lekuona Mena - Ayete
11:00etan, Ainhoa - Izarra
12:00etan, Illun - Naiban
13:00etan, Mosrrison's - Obelix
15:00etan, Ilargi - Kalaberri Z
16:00etan, Indaux Katakras

16:15ean, Tolargi - ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Belabieta kiroldegia, Ibarra.

Igandea 13

HERRIKO TXAPELKETA
10:00etan, S.Andaluz - Viña del Mar
11:00etan, IOB H.K. - Oriñ kri.



I PILOTA I

Ostirala 11

18:30ean, Antigua - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, II. kadetea) Ibaeta, Donostian

Larunbata 12

16:00etan, Intza - Euskal Giroa (Gipuzkoako Errendimendu txapelketa, eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Michelingo frontoian.
16:00etan, Intza - Ilunpe (Gipuzkoako Errendimendu txapelketa, eskuz, binaka, infantilak) Michelingo frontoian.
16:00etan, Intza - Eibar (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, III. kadetea) Michelingo frontoian.
16:00etan, Intza - Antigua (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, I. seniorra) Michelingo frontoian.

I ATLETISMOA I

Larunbata 12

10:00etan, Landaberri eta Sasoea ikastetxeko gaztetxoek Eskolarteko alebin eta infantil mailako txapelketako proba libreetako jardunaldia dute, Anoetako belodromoan, Donostian.
11:30ean, Santos Amilibia beteranoak Euskadiko txapelketan parte hartuko du 5 km martxa proban, Gasteizen.
16:30ean, LOKEko eta herriko atleten senior mailako Euskadiko txapelketa dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

Igandea 13

10:15ean, LOKEko eta herriko atleten senior mailako Euskadiko txapelketa dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

I IGERIKETA I

Larunbata 12

10:30ean eta 17:00etan, Buruntzaldea IKT-ko lehenengo mailakomailako igerilariak, infantil, junior eta absolutu kategoriakoak Gipuzkoako Neguko Txapelketan lehiatuko dira, Tolosan.

Igandea 13

10:30ean eta 17:00etan, Buruntzaldea IKT-ko lehenengo mailako igerilariak, infantil, junior eta absolutu kategoriakoak Gipuzkoako Neguko Txapelketan lehiatuko dira, Tolosan.

I JUDO A I

Larunbata 12

Egun osoa, LOKEko Kiara Tobajas, Abayua Gutierrez eta Josu Olmosek kadete mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute, Gasteizen.

Igandea 13

10:00etan, LOKEko judoka gazteek 23 urte azpiko Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute, Lezon.

I BOLA-JOKOA I

Igandea 13

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak bikoteak txapelketako azken jardunaldia du, Legazpin.

I ESKOLA KIROLA I

Larunbata 12

09:30etik 10:45era, LH4 eta LH3 mailako gaztetxoek Errugbi Topaketako jardunaldi berria dute, Kiroldegian.

Carrasco eta Gonzalezek irabazi zuten eremuko ehiza txapelketa

Jesus Ferreirarekin batera, Gipuzkoako ehiza txikia txakurrarekin Txapelketarako sailkatu dira

Azkorteko ermita ondoran dauden Benedika eta Buruntza belardietan, urtarrilaren 29an, larunbatean, 2. Eremuko senior, beterano eta jubenil mailako XXXI. Ehiza txikia txakurrarekin txapelketa burutu zen.

Astigarragako Gure Izarra, Andoaingo Ontza, Urnieta Santa Krutz, Hernaniko Txantxangorri eta Lasarte-Oriako Buruntz-Azpi ehiza elkarteetako gogeiaren bat ehiztarik parte hartu zuten lehiaketan.

Herriko Buruntz-Azpi elkarteko ehiztarik lan ona egin zuten beterano eta jubenil mailako txapelak eskuratu eta Gipuzkoako txapelketarako txartela lortu dute hiru ehiztarik, Jesus Ferreirak, Antonio Carrascok eta Ioritz Gonzalezek.

Irabazleak

Andoaingo Ontza elkarteko Francisco Llamasek lortu zuen senior mailako txapela. Honek lau eper eta bi faisai ehizatu zituen garaipena eskuratzeko.

Bigarren postuan, lau eper eta faisai batekin Hernaniko Txantxangorri elkarteko Iñaki Esnal izan zen eta Jesus Ferrei-



Arg.: Buruntz-Azpi elkarte

Ferreira, ezkerreko lehena eta Carrasco behean, txapelketako beste sarituekin.

ra herritarrek lortu zuen podiumeko azken postua, bi eper eta bi faisai botata.

Beterano eta jubenil mailatan aldiz, Lasarte-Oriako Buruntz-Azpi elkarteko bi kidek, Antonio Carrasco eta Ioritz Gonzalezek, hurrenez hurren, jantzi zuten txapela.

Arrantzako lizentzia

Era berean, Buruntz-Azpi

elkartek jakin arazten du, arrantzako lizentzia eskatu edo berritzeko epea ireki dela.

Bazkideek edo herritarrek federatzeko tramiteak egin edo informazioa eskuratzeko asteazkenetan edo ostegunetan, 20:00etatik 21:00etara, elkartera hurbildu edo 687 828 305, Txelui, telefono zenbakira deitu dezakete. •

Bodegas, Latorre eta Sevillano Gipuzkoako txapeldun berriak

Lehenengo asteburuan, senior mailako Gipuzkoako txapelketa burutu zen Donostiako belodromoan eta igandean, Gipuzkoako Kros laburreko txapelketa Hernanin. Bietan emaitza paregabeak lortu zituzten herriko atletek eta hiru Gipuzkoako txapeldun berri ditugu Lasarte-Orian.

Dominak eta markak

Pista estaliko Gipuzkoako txapelketetan bi urrezko domina, zilarrezko bat eta estatuko junior mailako bi marka gutxieneko lortu zituzten.

Larunbateko jardunaldian. Navarra ISN taldean dagoen Jose Ramon Latorrek 60 metroko proban lortu zuen lehenengo txapela.

Igandean, berriz, 60 metro hesian proban, Real Sociedad Krafft taldean dagoen Iñigo Sevillano herritarra izan zen urrezko domina eskuratu zuen bigarrena.



LOKEko Irati Larrañagak jauzi hiruikoitzean zilarrezko domina eskuratu zuen.

Oskar Goikoetxeak zuzendutako LOKEko gazteak ere fin ibili ziren.

Irati Larrañagak jauzi hiru-koitzean, 11,07 marka eginez, Gipuzkoako txapelketako zilarrezko domina eta Estatuko txapelketetarako txartela eskuratu zuen.

Gaizka Ormazabalek ere estatuko marka egin zuen 200 metroetako sailkapenen lasterketan, 23,09. Baina hori lortu

ostean, ezin izan zuen finalean parte hartu.

Kros laburra

Bestalde, Hernaniko Landareko Errugbi zelaietan burutu zen XLVII Adarraga memoria eta honen barruan, Gipuzkoako Kros Laburreko txapelketa.

Honetan, emakumeen mailan, Lasarte-Orian bizi den Pili Bodegasek eskuratu zuen garaipena 13:30 denborarekin. •

Oharrak

Bihar denok Donostiara

"Sasi guztien gainetik, eskaldun eta burujabe" izateko deialdia egin du Euskal Herrian Euskaraz-ek otsailaren 12an eskaldun guztiak bildu eta manifestatzeko Donostian. Bidea egin behar dugu eskaldun eta burujabe izateko, horretarako konpromisoa hartu du EHE-k.

Zuk ere bide horrekin bat egin dezakezu Sasi guztien gainetik, eskaldun eta burujabe manifestuarekin bat eginez (<<http://www.euskalherria-neuskaraz.org/index.php/oro-korra/483-sasi-guztien-gainetik-euskaldun-eta-burujabe>>) eta manifestazioan parte hartuz.

Galdutako erlojuak

Swatch markako erloju beltz bat galdu zait Lasarte-Oriako kiroledegiaren inguruan. Jaso duen pertsonari bueltatzea eskertuko nioke, oparia baita. Eskerrik asko. Mikel 647 995 050 (mikelgnieto@terra.es)

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pultsera, betaurreko graduatuak, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxatilla, neskaren eskumuturra eta zilarrezko pultsera bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horretarako interesaturik dauden pertsona guztxi eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info



Euskarazko animaziozko filma igandean eskainiko da

Erdi Aroko fantasiaren testuinguruan, MYSTIKAL istorioak Eldyn aurkezten digu, ikasten ari den azti gaztetxoak, traketak, baldar eta inozente samarra, akats "ñimiño" batengatik hil ala biziko borrokan murgildua dagoena. Egindako okerra zuzendu beharrez, Fira ninfa txikia izango du lagun. Bidean topatuko dituztenak ere lagun izango dituzte... edo etsai.

IGANDEAN, HILAREN 13AN
KULTURETXEAN 17:00ETAN
SARRERA, 3,30 EURO, EUSKARAZ

Egunero

Erakusketa

MAITENA URRETABIZKAIAREN argazkiak ikusgai. Aukeratu gehien gustatzen zaizun argazkia eta parte hartu zozketan. Jalgi kafe-antzikian.

Ostirala, 11

Berto-saioa

LASARTE-ORIAKO BERTSO-ESKOLAK ETA GABIRIKOAK Bertso-desafioa jokatu dute. Herriko bertso-eskolatik Andoni Otamendi, Ane Labaka eta Axier Azipiroz arituko dira eta Gabiritik berriz Endika Igartzabal,

Gorka Maiz eta Mikel Asurabarrena. Jalgi kafe-antzikian, 22:30ean, EUSKARAZ

Ostirala, 18

Antzerkia

DIBERTIMENDI antzezlanaren aurkeztuko du Xebe Diez aktoreak. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan, EUSKARAZ.

Asteazkena, 23

Ikastaroa

TXAKURRAK ONDO HEZITZeko ikastaroko bigarren saioa. Manuel Lekuona kulturetxean 19:00etan eta doan izango da.

Lasarte-Oriako XXV. urteurrena

Astelehena, 14

11:00 LASARTE-ORIAKO BANDERAREN IGOERA. Udaletxean.
11:15 POEMEN IRAKURKETA EPAK, literatura tailerrak eta Zentro Zibikoak. Udaletxean.
19:00 ORIA erakusketaren inaugurazioa. Kulturetxean.
20:00 DANTZA ETA ANTZERKI EMANALDIA Kukuka taldearen eskutik. Kulturetxean.

Asteartea, 15

11:00 MEZA Brigitarren komentuan boskote batekin eta Patxi Etxeberria bertsolariarekin.
12:30 LASARTE-ORIAKO ERESERKIA ETA UDALAREN ERAKETAREN AKTAREN IRAKURKETA. Udaletxean.
18:00 "AUSENCIAS" liburuen aurkezpena Udaleko pleno arloan.
20:00 ORFEOI GAZTE taldearen emanaldia Brigitarren komentuan Danok Kideren VI. Musika Topaketetan.

Asteazkena, 16

18:00 BIYAK BAT ZAHARREN ETXEO ETA EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOKO abesbatzen emanaldia kulturetxean.
19:30 HERRIAREN SORRERA izeneko hitzaldia eskainiko du Jesus Manuel Perez Centenok kulturetxean.
20:15 DERBIA jokatu dute Aldaz eta ISU areto futboloko taldeek kiroldegian.

Osteguna, 17

18:30 HERRIKO LEHENENGO IRUDIEN proiektzioa eskainiko da eta ondoren Udal Musika eta Dantza eskolen emanaldia kulturetxean.
20:00 "EL MUNDO LABORAL DE LASARTE-ORIA" liburua aurkeztuko du Antxon Aguirre Sorondok kulturetxean.

Ostirala, 18

18:00 HERRIKO TALDEEN kontzertuak izango dira entzungai eta Kale Hezitzaileen tailerrak eskainiko dira Andatza plazan.

Larunbata, 19

10:00 BOLA TXAPELKETA jokatu da Michelingo bolatokian.
11:00 GIMNASIA ERAKUSTALDIA Biyak Bat Erretiratuen etxeko taldearen eskutik. San Pedro parrokiaren ondoko Elizatza plazan.
11:30-13:30 HAURRENTZAKO **16:30-18:30** JOLASAK egongo dira Andatza plazan.
12:00 INTZAKO PILOTA partidak jokatu dute Loidi Barreneko frontoian.
19:30 ALBOKA ABESBATZA, SEMBLANTE ANDALUZ, ERKETZ DANTZA TALDEA, ZERO SETTE AKORDEOI ORKESTRA ETA AMAIA GONZALEZ taldeek emanaldi bateratua eskainiko dute kulturetxean.
23:00 AZABACHE taldearekin berbena Isla plazan.

Igandea, 20

10:00 KALBA jokoa izango da Atsobakar auzoan.
11:30-13:30 HAURRENTZAKO **16:30-18:30** JOLASAK egongo dira Isla plazan.
11:30 HELDUEN DANBORRADA aterako da Brigitarren komentutik.
16:00 SORGINDANTZAREN DESFILEA aterako da Arantzazuko Amaren elizatik.
17:00 DERBIA jokatu dute Texas eta Ostadar futbol taldeek Michelinean.
18:00-22:00 ERROMERIA eskainiko du Amalur taldeak eta saiheski eta sagardo dastatzea izango da Loidi Barreneko frontoian.

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Ana Isabel Prieto
Lasarte-Oriako Herriarren
Plataformako zinegotzia
Udalean

Eskutitza

Azkenean posible izan da

Ikusi duzue? Azkenean posible izan da: Alkate jauna langabezegogoratu da eta udal zerbitzuen tasetan beharpekin egin dizkie. Zein ideia ona alkatearena! Fina izan da horretan, ezta? Denbora gutxi behar izan du, ordenantza fiskalak onartu zirenean, Lasarte-Oriako Herriarren Plataformak langabeak kontuan izateko proposamena egin baitzuen. Lasarte-Oriako Herriarren Plataforma gizarte proposamenak egin zituen talde bakarra izan zen berez,

familia ugari, langabeengan, e.a. pentsatzen, hau da krisi honetan egoera txarrean daudenengan. Beste alderdiek ez zuten horrelako proposamenik egin, ezta PSE-EEk ere. Horregatik, azkenean, guri arazoia emateak poztzen gaitu.

Kontua da partidu txikia izan arraen, gobernu taldeak asko entzuten gaituela. Egia da haien atzetik ibili behar dela, Kirol arloko zinegotziari kiroldegiko zein makina hondatzen diren esan behar zaio; Lan eta zerbitzuetakoari, errepidetan zuloak non dauden eta zein baldosa edo kutxatila hondatu den. Loidi-

Barreneko urbanizatzela lanean sortzen diren putzuen argazkiak bidali ditugu, haiek dudarik ez izateko. Eta zaharren erresidentziako lanak? Berriztatze oso horretan akats ugari antzeman eta hauen berri eman dugu. Gure oharpenak kontuan izango dituzte orain edo beste eraberritze bat egongo da hemendik bi urtetara salatutako hutsak konpontzeko?

Baina azkenean kasu egiten digute. Alkateak ideia gure izan zela esatea ahaztu duela? Beno, tasak jasotzen dituztenak ere ez zituen ohartarazi, eta orain langabeak prozesioan doaz kirol-

degira soberan kobratu dietena bueltatzeko eskatuz. Hau urtarrilaren 1ean indarrean egon behar zela eta ez otsailaren 1ean? Ze gauzak eskatzen dituzten! Zuzenketa egiteaz gainera, tasak, urtekoak eta udalbatzarrean onartuak direnak, urtero kobratzea eskatzen duzue; honelako lardakeria bat egin eta listo, badaukagu aldizkarietan beste argazki bat, beste urtegi bat inauguratu balu bezala.

Esandakoa, inoiz ez izatea baino, berandu izatea hobe. Baina, alkate jauna, ez luze jo, Lasarte-Oriako Herriarren Plataformak aza-

roaren 4an azaldu zion PSE-EEren urriaren 26ko proposamenak ez zuelako hori jasotzen eta azaldu eta gero, ez zuen argi ikusten. Lasarte-Oriako herriarrek ez dute errurik, ez, Lasarte-Oriako Herriarren Plataformak ideia bat eman eta zuk hau onartzeko hainbeste denbora behar izateagatik.

Unai Muñoa Bertsolaria

“Txapelketa hitza soberan du Beterrik”

Lasarteoriatarak Beterri txapelketako finalean kantatuko du larunbatean ■ Jokin Labaien eta Ander Lizarraldekin batera hiru neskaren aurka ■ Aurretik bi aldiz parte hartu eta bi txapel ditu

Larunbatean, afalostean, Villabonako Behar Zana elkarrean jokatu da Beterri Txapelketako finala. Dena den 20:30etan hasiko den afariko txartel guztiak aspaldi saldu ziren. Unai Muñoak hiru aldiz parte hartu eta hirugarren txapelaren bila aterako da taldeka jokatzeko den txapelketa honetan, Jokin Labaien arrasatearrarekin eta Ander Lizarralde oiartzuarrarekin batera. Aurrean, Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia eta Onintza Enbeitak osatu duten taldea. Amaia Agirre arituko da gai jartzeko.

JON ALTUNA

Txapela berriz jantzen saiatuko da Unai Muñoa bihar Beterriko txapelketan. 2008an eta 2010ean ere txapelak izan zen. Ander Lizarralde taldekideak azken bi urteotan jantzi du txapela.

Beterri Txapelketako finalean, berriro, gogoz al zaude?

Bai, gainera txapelketa polita da guretzako. Hirugarren aldiz parte hartzen dut... eta hirugarren aldiz naiz finalerdiaren. Beste bietan txapela eskuratu nuen gainera: 2008an, Iker Zubeldia eta Nahikari Gabilondorekin eta iaz Inaki Apalategi eta Ander Lizarraldekin. Aurten Ander eta biok errepikatu eta Apalategiren ordez, Jokin Labaienek kantatuko du.

Nolako saioak izaten dira? Txapelketa berezia da, ezta?

Txapelketa hitza soberan daukan txapelketa da Beterri, badauka epaia baina tentsioa eta ezaugarriak ez dira txapelketa batekoak. Hori oso ondo hausten du hasierako agurrak: puntuagarria da; etxetik prestatuta eramaten dugu; horrek behartzen gaitu saioa baino lehen taldekideak elkartu eta umore klabean agur bat prestatzera; eta horrek gure artean konplizitate eta giro ona sortzen du. Gure ohitura izan da agur barregarriak sortzea, gure buruari parra egitea. Kanporaketa saioan adibidez kantu txapelketa moduko bat egin genuen, Egan-eko Saldias, Kupela-ko Larrañaga, Manolo Escobar eta Joaquín Sabina imitatuz, eta tonu horretan hasita...

Antzerkitik ere badu beraz?

Bai, Ander eta biok, konbentzitu gaude, gure arrakasta txapelketa horretan agurrak izan direla. Gero saioaren barruan dauden ariketetan denetarik dago, umore gehiago edo gutxiago, eta lan serioak, baina agurrak aukera ematen du lotsa guztiak galdu eta ton-takeriak egiteko.

Txoreroarena egiteko, ... zer moduzko taldea zarete?

Ander eta nik konplizitate handia daukagu, agian bestela ere harreman pertsonal estua daukagula eta iaz ere elkarrekin hori esperimentatu genuelako... Aurten, Jokin Labaien, lotsatiago, baina jarraera onarekin da, oso positibo bera ere, talde ederra da. Ondo pasatu dugu, aste honetan bi aldiz elkartu gara agurra prestatzeko.

Hala ere finala gogorra izango da, aurrean Alberdi, Agirreazaldegia eta Enbeitak edukita? Nola ikusten duzu?

Ondo. Beraiek daukaten bezain zaila daukagu guk finala. Neska eta mutilen arteko joko hori, hor dago, ez dakit zenbaterainoko pisua izango duen baina... Uxue eta Ainhoa oso lagunak ditut gainera.

Lagunarteko saioa izango dela aurre ikusten da. Kostako zaigu txapela lortzen, nik uste agurrean izango dela gako.

Taldeka txapelketa asko ez da egiten, nola ikusten dituzu?

Orain dela urte batzuek Gipuzkoako herrien arteko txapelketan egin zen esperimentu bat. Taldeak asko lagutzen du norberarengandik karga kentzeko eta bertsolaritza beste era batera ulertzeko. Taldean beste elkar ulertze bat izaten da, beste konfiantza bat. Formula polita da, gehienbat txapelketa hitzari karga kendu eta beste zerbaitetan bihurtzen duelako.

Aurten mutil-neska arteko lehia bultzatu dute: finalerdi batean, sei mutil; bestean, sei neska; finalean hiru mutil hiru nesken aurka. Jokorik eman al du?

Antolatzaileen helburua garbia da, saioa erakargarria izatea eta gu, kantatzen dugunak, eroso sentitzea. Taldeak egitekoan irizpideak adina, elkar ulertzea eta eman dezaketen jokoak erabili dira: Nesken artean, "vieja guardia" Uxue, Ainhoa eta Onintza nagusitu ziren Jone Uria, Miren Amuritz eta Alaia Martin gazteagoen aurka.



Jokin Labaien, Unai Muñoa eta Ander Lizarraldekin beste beste Manolo Escobar imitatu zuten kanporaketako agurrean.

Amaia Agirre arituko da gai jartzeko, berezia da horretan...

Bai, zerbaitetan hasten denean ondo egitea gustatzen zaio, eta normalean asmatzen du. Kontutan hartzen du bertsolaria eroso sentitzea, badakielako hortik abiatuta aterako dela zerbait ona ala ez.

Aurten Gipuzkoako txapelketaren urtea da, nola ikusten duzu zure burua?

Gogoia daukat, nire buruari demostratu nahi diot, denbora pasa dela, azkenengo txapelketatik lau urte pasa direla, eta horrek nigan eragina izan duela. Egia da ez dudala 18 urterekin txapelketan kantatzeko sentitzen nuen entusiasmoa, baina badaukat gogoia.

Gainera aurten Berto Eskolak Karlos Aizpurua eta Andoni Egañarekin saio berezi batzuek antolatuta ditu eta prestakuntza giro batean sartu gaitu, geure burua gehiago estutzen. Ni ondo ikusten naiz, gogoz, niretik egiteko.

Berto Eskolak ikastaroa antolatzea zer iruditu zaizu?

Oso ondo. Orain dela hamar urte esango baligute Hernaniko Berto Eskolatik hiru gazte

Saioa Jalgin

Lasarte-Oriako bertsolaria Gipuzkoako txapelketarako prestatzen segitzen dute eta hilabete honetan Gabiriako Berto Eskolari bota diote desafioa. Jalgin neurtuko dituzte indarrak gaur ostirala 22:30ean Andoni Otamendi, Ane Labaka eta Axier Azpiroz-ek Gabiriko Endika Igartzabal, Gorka Maiz eta Mikel Asurabarrenaren aurka.



Muñoak bi aldiz jantzi du Beterri txapela.

Elkarrizketa osoa www.txintxarri.info webgunean

Hasierako agurra puntuagarria da, etxetik prestatuta eramaten dugu eta horrek gure artean konplizitate eta giro ona sortzen du

Lasarteko Berto Eskolara etorriko zirela, astero, seguru aski parra egingo genuke.

Ondo funtzionatzen ari da ikastaroa, gure arteko balorazioak oso positiboak dira.

Saiatuko zara Txapelketa nagusirako txartela lortzen berriro,...

Bai helburua hori da, ez dakit zenbateraino gehiago egin dezakedan, baina orain dela lau urte Euskal Herriko sailkatu nintzen eta listoia mantentzea. Hortik zerbait gehiago egin banezake, ondo.

Lasarteko bertso eskolan denetarik dago, bertsotan eskarmentu handikoak eta hasi berriak, zaharrak eta gaztetxoak, nola ikusten duzu uztarketa edo nahasketa hori?

Ederra da. Hain belaunaldi desberdineko, hain ideologi desberdineko eta amaren seme alaba hain desberdinak elkarrekin diren eremu gutxi gaude, espazio bat konpartitzen dugu adiskidetasun eta konfiantzaz: luxua da Patxi Etxeberria Berto Eskolara etortzea; bertsotarako ambizioak ez daukaten Imanol Lizardi edo Joxe Kruz Labaka, ... guri laguntzen eta gozatzen hor egotea; lagun koadrila hori osatu izana eta orain gazteek gerora begira ematen ditugun indarra. Ezagutzeko moduko esperientzia da eta asko ikasten den lekua.

Seguru nago, Ane eta hauek, nik ere hala ikasi nuelako, helduagoen ondoan asko ikasiko dutela eta ez bertsotan bakarrik. •